



**ANDER ASULA GARCIA**  
MIGUEL ALTUNA LANBIDE  
HEZIKETAko ikasle bergararra

# DEBAGOIENeko LANBIDE HEZIKETAko ESPERIENTZIAK

## IKASKETAK:

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa goi-mailako heziketa zikloa bukatuta. Dual sistema Elay enpresan.

## GAUR EGUN:

Automatizazio eta Robotika Industrialak goi-mailako zikloa ikasten eta Elay enpresan lanean egun erdiz.



**GOIAZ! 2018**  
Lanbide Heziketaren Azoka  
**Apirilaren 17an eta 18an**  
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune  
eta Lurralde Oreka Departamentua

### Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Inguruko enpresa asko industrialak direla ikusita, Lanbide Heziketa ikastea erabaki nuen, eta ondoren, nahi izanez gero, unibertsitatara joateko aukera beti dago zabalik. Oraingo, ez dago nire asmoen artean, lana aurkitu dudalako. Egindako aukerarekin oso pozik nago.

### Nolakoak dira eskolak Lanbide Heziketan?

Orain, ETHAZI metodologiarekin ari gara ikasten. Jakintza minimo batzuk azaltzen dizkigute eta proiektu edo erronka bat zehazten da. Eta, taldeka, eskatutako helburuak lortu behar ditugu, gure kasa moldatu behar izaten dugu, emaitzak lortu arte. Metodo interesgarria da, ez da teoria entzutera mugatzen.

### Ze onura ditu Dual sistemak?

Ikastetxean ikasitakoa martxan jarri eta enpresan aplikatzeaz gain, enpresan ere ikasi egiten dela. Bertan ikusten duzu errealitatea, gero aurkituko duzuna.

### Dual sistemari buruz ze balorazio egiten duzu?

Oso ona. Elay enpresan egon nintzen lau orduz arratsaldeetan lanean, Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko bigarren maila egiten nuen bitartean. Eta gaur egun, bertan lanean jarraitzen dut.

### Beraz, orain ikasketak eta lana bateratzen dituzu?

Bai, hori da. Goizez bigarren zikloa ikastera etortzen naiz, eta arratsaldean lanera. Gainera, enpresak ordutegia moldatu du nire beharretara, bietara ondo heltzeko.

### Lanbide Heziketa nori gomendatuko zenioke?

Lanean hasi nahi duten pertsonentzat interesgarria da Lanbide Heziketa. Ziklo batek ate asko zabaltzen dizkizu, eta ondo prestatuta irteten zara.